

2024

Euskal Autonomia Erkidegoa

Aurrekontu Orokorren Proiektua

Proyecto de Presupuestos Generales

Comunidad Autónoma de Euskadi



07. Hezkuntza

07. Educación

Haurreskolak
Unibasq
Musikene

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

2024

Euskal Autonomia Erkidegoa

Aurrekontu Orokorren Proiektua

Proyecto de Presupuestos Generales

Comunidad Autónoma de Euskadi



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2023ko urria / 1a, octubre 2023

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ekonomia eta Ogasun Saila / Departamento de Economía y Hacienda

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

07-HEZKUNTZA	
07-EDUCACIÓN	6
Sekzioaren eta Programen Memoriak	
<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	7
Gastuen Egoera-orria	
<i>El Estado de Gastos</i>	82
1228 BEM Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa	
<i>MRR Mecanismo de Recuperación y Resiliencia</i>	83
4211 Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	
<i>Estructura y Apoyo de Educación</i>	86
4221 Haur eta Lehen Hezkuntza	
<i>Educación Infantil y Primaria</i>	98
4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	
<i>Educación Secundaria y Formación Profesional</i>	104
4223 Unibertsitateko Irakaskuntza	
<i>Enseñanza Universitaria</i>	115
4224 Araubide Bereziko Irakaskuntzak	
<i>Enseñanzas de Régimen Especial</i>	117
4225 Hezkuntza Berritza eta Irakasleak Etengabe Presta	
<i>Innovación Educ. y Form. Perman. del Profesorado</i>	121
4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	
<i>Aprendizaje Permanente y Edu. Personas Adultas EPA</i>	128
4231 Hezkuntza Sustapena	
<i>Promoción Educativa</i>	131
4715 Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea	
<i>Euskaldunización del Sistema Educativo</i>	135
5412 Ikerketa	
<i>Investigación</i>	139
5414 Berrikuntzarako Funtza	
<i>Fondo de Innovación</i>	142
Diru-sarreraren Egoera-orria	
<i>El Estado de Ingresos</i>	144
4211 Hezkuntza. Egitura eta Laguntza	
<i>Estructura y Apoyo de Educación</i>	145
4221 Haur eta Lehen Hezkuntza	
<i>Educación Infantil y Primaria</i>	146
4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	
<i>Educación Secundaria y Formación Profesional</i>	147
4223 Unibertsitateko Irakaskuntza	
<i>Enseñanza Universitaria</i>	148
4224 Araubide Bereziko Irakaskuntzak	
<i>Enseñanzas de Régimen Especial</i>	149
4226 Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	
<i>Aprendizaje Permanente y Edu. Personas Adultas EPA</i>	150
4231 Hezkuntza Sustapena	
<i>Promoción Educativa</i>	151

5412 Ikerketa	
<i>Investigación</i>	152
Gastuen Laburpenak	
<i>Resúmenes de Gastos</i>	153
Diru-sarrerren Laburpenak	
<i>Resúmenes de Ingresos</i>	189
EAEKO SEKTORE PUBLIKOAREN PARTZUERGOAK	
CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE	191
Haurreskolak Partzuergoa	
<i>Consortio Haurreskolak</i>	192
ENTE, SOZIJETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK	
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS.....	211
UNIBASQ	
<i>UNIBASQ</i>	212
MUSIKENE	
<i>MUSIKENE</i>	233

07-HEZKUNTZA
07-EDUCACIÓN

Sekzioaren eta Programen Memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas

HEZKUNTZA

EDUCACIÓN

Hezkuntza herri-erronka handia da, eta gure ikasleak prestatu nahi ditu garapen integralerako, ingurune sozial eta kultural askotariko, konplexu eta dinamiko batean. Ingurune horrek gaitasun eta balio jakin batzuk lortzea eskatzen du, eremu pertsonalean, akademikoan eta profesionalean arrakastaz moldatzeko aukera izan dezaten.

Herri-erronka eta erronka partekatua, Eusko Legebiltzarrak 2022ko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran agerian geratu ahal izan zen bezala, non gehiengo zabalarekin onartu baitzen gure hezkuntza-sistemaren etorkizunari buruzko oinarrien akordioa.

Akordio horren garapena izango da, berriz ere, 2024ko ekitaldiko eta etorkizuneko ekitaldietako sailtako esparruetan jarduteko gida.

Legegintzaldiko proiektu baten aurrean gaude, eta 2024ko ekitaldian, hezkuntza-kalitatea, gizarte-kohesioa eta aniztasunari eta kulturartekotasunari erantzungo dieten desberdintasunen aurkako borroka izango dira gure gizarteak eskatzen dizkigun lehentasunak. Beraz, hezkuntza-sistemak gai horietan sakontzea eskatzen digu, hainbat erronkarekin batera, hala nola erronka demografiko-soziala, teknologiko-digitala edo garapen iraunkorrari eta ingurumenari erreferentzia egiten diona.

2022ko ekainaren 21ean Gobernu Kontseiluak Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia onartu ondoren, 2023-24 ikasturteik aurrera, Haurreskolak Partzuergoak ematen duen zerbitzua indartu egingo da 0-2 urteko etapan doakotasuna bermatuz. 2024ko ekitaldian, ekitaldi osorako aurrekontu-aurreikuspenak jasotzen dira, estrategia horren esparruan garatu beharreko konpromisoak eta ekimenak garatzeko.

Horrez gain, Jaurilaritzak sail anitzeko eta erakunde arteko 36 ekimen osagarriak garatzen jarraituko du, demografiaren berreskurapenerako neurri eta baldintza mesedegarrien ekosistema bat eratzeke helburuarekin.

2024ko ekitaldian, 2022ko apirilaren 26an Jaurilaritzaren Kontseiluak onartutako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako 2022-2024 Plan Estrategikoaren jarduerak garatzen jarraituko da.

Planaren lehentasuna da hezkuntza-sistema osoa -Haur Hezkuntzatik unibertsitateraino- aro digitalera egokitzea, ikasleak ikaskuntzaren erdigunean kokatuz.

Ezin dugu ahaztu gure sistema sistema bat dela, non koheretia, inklusioa, oreka eta lankidetzak, ekitatearekin batera, hezkuntzaren funtsezko elementuak diren.

La educación es un gran reto de País, que tiene el objetivo de preparar a nuestro alumnado para su desarrollo integral en un entorno social y cultural diverso, complejo y dinámico. Un entorno que requiere el logro de unas competencias y valores que les permita desenvolverse con éxito en el ámbito personal, académico y profesional que elijan.

Un reto de país y un reto compartido como pudo ponerse de manifiesto en la sesión del Pleno del Parlamento Vasco celebrada el día 7 de abril de 2022, en el que fue aprobado por amplia mayoría el Acuerdo de bases sobre el futuro de nuestro sistema educativo.

El desarrollo de dicho acuerdo vuelve a ser la guía la actuación en los distintos ámbitos departamentales del ejercicio 2024 y de futuros ejercicios.

Estamos ante un proyecto de legislatura y en el ejercicio 2024, la calidad educativa, la cohesión social, la lucha contra las desigualdades que den respuesta a la diversidad e interculturalidad seguirán siendo las prioridades que nuestra sociedad nos demanda. Por tanto, el sistema educativo nos reclama ahondar en estas cuestiones, junto con una serie de retos, como el reto demográfico-social, el tecnológico-digital o el que hace referencia al desarrollo sostenible y el medio ambiente.

Tras la aprobación el 21 de junio de 2022 en Consejo de Gobierno de la Estrategia Vasca 2030 para el Reto Demográfico, a partir del curso 2023-24, el servicio que presta el Consorcio Haurreskolak se verá reforzado con la gratuidad en la etapa 0-2 años. El ejercicio 2024 recoge las previsiones presupuestarias a ejercicio completo para el desarrollo de los compromisos e iniciativas a desarrollar en el marco de dicha estrategia.

Además, el Gobierno continuará desarrollando 36 iniciativas complementarias multidepartamentales e interinstitucionales con el objetivo de constituir un ecosistema de medidas y condiciones favorables para la recuperación demográfica.

El ejercicio 2024 continuará con el desarrollo de las actuaciones del Plan Estratégico de Transformación Digital del Sistema Educativo Vasco 2022-2024, aprobado por el Consejo de Gobierno el 26 de abril de 2022.

El plan tiene como prioridad la adaptación a la era digital de todo el sistema educativo -desde Educación Infantil hasta la universidad- situando al alumnado en el centro del aprendizaje.

No podemos olvidar que nuestro sistema es un sistema, en el que la cohesión, la inclusión, el equilibrio y la cooperación, junto con la equidad, son elementos sustanciales a la educación.

Zehaztutako aurrekontu-ildoen helburua politika horiek indartzen jarraitzea da.

Era berean, hezkuntza-azpiegiturako hobekuntzak eguneratzen, garatzen eta pixkanaka gauzatzen jarraituko da, Sailaren Inbertsio Planaren bidez.

Bestalde, 2030erako hezkuntzaren esparruak aitortzen du hezkuntzak betetzen duen eginkizuna, garapen jasagarriko helburuak lortzeko eragile nagusia den aldetik, eta, zehazki, 4. helburu espezifikoan, adierazten du hezkuntza funtsezkoa dela hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzeko eta pertsona guztientzat bitzita osoan ikasteko aukerak sustatzeko.

Horregatik guztiagatik, hazkunde jasagarri eta integratzailea eta bizikidetza baketsua ekarri duten gaitasunak eta balioak sustatu behar ditugu.

Kompetentzietan eta pertsonetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi horrekin, ikasleak kontzienteago izan beharko du pertsona gisa duen garapenaz eta ikaskuntza-prozesuaz: gure hezkuntza-ereduak indar guztia jarri beharko du ikasten jarraitzeko aukera ematen dion guztian.

Era berean, ikastetxeen autonomia handiago batean sakonduz, zuzendaritza-lidergo sendoak eta irakasleen protagonismoa bultzatzeko bidean jarraituko dugu, ezinbestekoak baitira hezkuntza-sistema osoa eraldatzeko eragile nagusi gisa.

Euskara ondasun gisa ulertu behar dugu, eskola- eta bitzita-tresna gisa, hau da, gure erkidegoko ikaskuntza-prozesuetarako eta giza harremanetarako. Hizkuntzaren erabilera ikastetxeko eremu guztietara (formalera eta ez-formalera) eraman nahi bada, ikaskuntza-testuinguruak birpentsatu beharko dira.

Azken batean, hezkuntza-sistema eleaniztun baterantz aurrera egiten jarraitzea da helburua, euskara ardatz nagusi izanik, ingeleseko prestakuntzan hobekuntza eta aurrerapen esanguratsuak txertatuko dituen hezkuntza-etapa goiztiarretatik.

Bestalde, teknologiek gure bizitzako esparru guztietan duten presentzia dela eta, euskal hezkuntza-sistema ez da soilik egokitu behar, baizik eta aldaketarako eta berrikuntzarako eragile bihurtu. Sailaren apustua argia da.

Testuinguru horretan, Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren bidez, teknologia digitalak hezkuntza-maila guztietan txertatzen jarraituko da, irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak hobetzeko eta dibertsifikatzeko eta gaitasun digitalak garatzeko duten potentziala aprobetxatuz.

Teknologia digitalak hezkuntza-sisteman txertatzeak, gure hezkuntza-erakundeak eraldatzeaz gain, egungo munduaren eskakizunekin koherentea den hezkuntza bermatuko duten ikaskuntza-inguruneak sortuko ditu, guztiei erabateko parte-hartzea ahalbidetuko diona, gure gizartearen ekitatea sustatuko duena eta garapen profesionala sustatuko duena, ezagutzaren gizarteko etorkizuneko profilei erantzuteko.

Las líneas presupuestarias definidas tienen como objetivo seguir reforzando estas políticas.

Asimismo, se seguirá con la actualización, desarrollo y progresiva ejecución de las mejoras en las infraestructuras educativas a través del Plan de Inversiones del Departamento.

Por otra parte, el marco de la educación 2030 reconoce el papel que desempeña la educación como motor principal para la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible y en concreto, en el objetivo específico 4, señala que la educación es fundamental para garantizar una educación inclusiva, equitativa y de calidad y promover oportunidades de aprendizaje durante toda la vida para todas las personas.

Por todo ello, debemos continuar fomentando competencias y valores que conduzcan a un crecimiento sostenible e integrador y una convivencia pacífica.

Con esta perspectiva de la educación basada en las competencias y las personas, el alumno o alumna deberá ser más consciente de su desarrollo como persona y de su proceso de aprendizaje, y nuestro modelo educativo deberá poner toda su fuerza en todo aquello que le permita seguir aprendiendo.

Así mismo, profundizando en una mayor autonomía de los centros, continuaremos en el camino ya iniciado de impulso de liderazgos directivos sólidos y del protagonismo del profesorado, imprescindibles como agentes principales de transformación de todo el sistema educativo.

Entendemos el euskera como un bien, un instrumento escolar y de vida, es decir, para los procesos de aprendizaje y para las relaciones humanas que se dan en nuestra comunidad. Si se quiere llevar el uso del lenguaje a todos los ámbitos del centro (formal y no formal) habrá que repensar los contextos de aprendizaje.

Nuestro objetivo no es otro que seguir avanzando hacia un sistema educativo plurilingüe, con el euskera como eje central, que incorpore mejoras y avances significativos en la formación en inglés desde las etapas educativas tempranas.

Por otro lado, y dada la presencia de las tecnologías en todos los ámbitos de nuestra vida, el sistema educativo vasco no debe sólo adaptarse, sino convertirse en un agente de cambio e innovación. La apuesta del Departamento en este sentido es clara.

En este contexto, a través del Plan de Transformación Digital del Sistema Educativo Vasco se continuarán incorporando las tecnologías digitales en todos los niveles educativos, aprovechando su potencial para mejorar y diversificar las prácticas de enseñanza y aprendizaje, y desarrollar competencias digitales.

La integración de las tecnologías digitales al sistema educativo no solamente transformará nuestras instituciones educativas, sino que generará entornos de aprendizaje que aseguren una educación coherente con las exigencias del mundo actual que posibilite una participación plena, que promueva la equidad en nuestra sociedad y que fomente el desarrollo profesional de cara a responder a los perfiles del futuro en la sociedad del conocimiento.

Alde horretatik, Kontseilu Europarrak 2020an onartutako Next Generation EU finantza-tresna berriaren Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoak (MRR) datozen baliabideak aipatu behar dira. Baliabide horiek hezkuntzaren esparruan hezkuntzako gaitasun digitala hobetzera, Lanbide Heziketa bultzatzera eta hezkuntza-sistema modernizatu eta digitalizatzea bideratuta daude, gure helburuak lortzen nabarmen laguntzen jarraituko dutelarik.

Era berean, curriculum aldatzeko estrategiarekin jarraituko dugu, gure hezkuntza- eta pedagogia-ereduaren esparruan. Curriculumaren osagai guztien planteamendu sistemiko eta integrala egiten duen eredu, hezkuntzaren helburuen eta printzipioen, ikasleen irteera-profilaren, metodologiaren eta ebaluazioaren arteko erlazioa ezarri. Esparru horrek hezkuntza-helburuak eta curriculum-ildo nagusiak zehazten ditu, eta, era berean, hezkuntza-eredu pedagogikoa ezartzeko eta hobetzeko ildo estrategikoak jasotzen ditu.

Halaber, azpimarratzen dugu haur bakoitzari modu pertsonalizatuan erantzuteak, planteamendu inklusiboetatik abiatuta, ikasle guztiei erantzungo dieten aniztasunari erantzuteko estrategiak eta programak bultzatzea eskatzen duela, bai eta haien garapen pertsonala eta akademikoa mugatu dezaketen oztipoak ezabatzea ere. Horrek esan nahi du nabarmen aldatu behar direla eskolaren egitura, funtzionamendua eta proposamen pedagogikoak. Guztiek ikaskuntzan arrakasta izatea eta modu ekitatiboan parte hartzea da kontua.

Ildo horretan, bizikidetzak positiboan sakontzea, hezikidetzako eskolaren ereduaren implementatzen jarraitzea eta orientazio pertsonaleko, akademikoko eta profesionaleko estrategia bat garatzea funtsezkoak dira herritar guztien garapen sozial eta pertsonalean, eta ezinbestekoa da ikaskuntzak eta heziketa-arrakasta lortzeko. Arrakasta hori errazteko beharrezkoa den ongizate emozionaleko, konfiantzako, onarpeneko eta inklusioko testuingurua eskaini behar du eskolak, harremanak berdintasun-testuinguru batean ezarri eta lankidetzak sorrarazteko helburu eta proiektu komunak formulatuz.

Lanbide Heziketari dagokionez, Euskadiko Lanbide Heziketako euskal sistemaren konfigurazioa eraikitzen eta indartzen joan da urteetan zehar, lan-merkatuaren eskaerei eta aldatetara erantzuteko formulatu eta bultzatu diren planen bakoitzaren bidez, igarotako aldi bakoitzean.

Lanbide Heziketako 6. Euskal Plana onartzea beste mugarri bat izan da Eusko Jaurlaritzaren plangintza estrategikorako ahaleginean, eta funtsezko tresna izan nahi du Lanbide Heziketako euskal sistema are gehiago indartzeko eta gure gizartea bizitzeko ari den aldeketa sakoneterako prestatzeko, ikuspegi adimentsu, iraunkor eta gizatiarrekina.

En este sentido, procede hacer referencia a los recursos procedentes del Mecanismo para la Recuperación y Resiliencia (MRR) del nuevo instrumento financiero Next Generation EU aprobado en 2020 por el Consejo Europeo, destinados en el ámbito de la Educación a la mejora de la competencia digital educativa, el impulso de la Formación Profesional y la modernización y digitalización del sistema educativo, que seguirán contribuyendo significativamente a la consecución de nuestros objetivos.

Igualmente, continuaremos con la estrategia de cambio curricular en el marco de nuestro modelo educativo y pedagógico. Un modelo que hace un planteamiento sistémico e integral de todos los componentes del currículo, estableciendo la interrelación entre las finalidades y principios de la educación, el perfil de salida del alumnado, la metodología y la evaluación. Este marco define los objetivos educativos y las grandes líneas curriculares, y así mismo recoge las líneas estratégicas para implementar y mejorar el modelo educativo pedagógico.

Asimismo, insistimos en que responder a cada niña o niño de forma personalizada, desde planteamientos inclusivos, exige impulsar estrategias y programas de respuesta a la diversidad que respondan a todo el alumnado y eliminar aquellas barreras que puedan limitar su desarrollo personal y académico. Esto implica cambiar sustancialmente la estructura, funcionamiento y propuestas pedagógicas de la escuela. Se trata de que todos tengan éxito en su aprendizaje y participen en el mismo de manera equitativa.

En esta línea, profundizar en la convivencia positiva, continuar implementado el modelo de escuela coeducativa y desarrollar una estrategia de orientación personal, académica y profesional son clave en el desarrollo social y personal de todos y todas las ciudadanas y es imprescindible para lograr aprendizajes y el éxito formativo. La escuela debe proporcionar un contexto de bienestar emocional, confianza, aceptación e inclusión necesario para facilitar dicho éxito, estableciendo las relaciones en un contexto de igualdad y formulando objetivos y proyectos comunes para dar lugar a la cooperación.

En lo que se refiere a la Formación Profesional, la configuración del sistema vasco de Formación Profesional en Euskadi, se ha ido construyendo y fortaleciendo a lo largo de los años a través de cada uno de los planes que han sido formulados e impulsados como respuesta a las demandas y cambios del mercado de trabajo, en cada uno de los periodos transcurridos.

La aprobación del 6º Plan Vasco de Formación Profesional ha supuesto un hito más en el esfuerzo de planificación estratégica del Gobierno Vasco y aspira a ser una herramienta clave para fortalecer aún más el sistema vasco de Formación Profesional y prepararlo para los profundos cambios que está viviendo nuestra sociedad, con una perspectiva inteligente, sostenible y humana.

Lanbide Heziketari dagokionez, gertatzen ari diren gizarte-aldaketek, kalitatezko enplegua eskuratzeko, lan-merkatua berregituratzeko, berrikuntza teknologikoen aurrerapenak, produkzio-prozesuen automatizazioak, digitalizazioak, robotikak eta sistema adimendunek, antolaketa- eta kudeaketa-mota berriek, lanbide-eremu berrien agerpenak eta tekniken eta ekipamenduen eraldaketa azkarrak eragin dute produkzio-sektoreek lanbide-heziketan aldaketa sakonak egitea.

Horrek beharrezko aldaketak egitera behartzen du Euskadiko lanbide-heziketa prest egon dadin aurkeztzen zaizkion erronka berriei aurre egiteko eta etorkizunean irekiko diren aukeren unibertso izugarria aprobetxatu ahal izateko.

Helburua da Lanbide Heziketa arina izatea, aurrea hartzeko, erreakzionatzeko eta benetako eraginkortasuna izateko zentzuarekin, azken batean, lanbide-heziketa adimenduna, jasangarria, inklusiboa eta solidarioa garatzeko.

Horretarako, lanbide-heziketak errendimendu handiko prestakuntza lantzen eta orokortzen jarraituko du, ikaskuntza-metodologia aktiboetan oinarrituta, eta lanbide-heziketa duala sustatzen jarraituko du.

Bestalde, Lanbide Heziketaren Euskal Legearen hedapenarekin eta Lanbide Heziketako 6. Euskal Plan berria ezarrita oso jardura zehatzak egiten jarraituko da, batez ere errendimendu handiko lanbide-heziketaren garapenari aplikatutako adimenari, berrikuntzari eta ingurune berriei dagokionez; betiere laugarren industria-iraultzaren bilakaerari eta Euskadin lanbide-heziketa ikasten ari diren edo ikasi nahi duten pertsonen prestakuntza handiagoak eragingo dituen beharrei dagokionez.

Euskal unibertsitate-sistemari dagokionez, bikaintasunerantz aurrera egiten jarraituko da, bai prestakuntza-eskaintzaren kalitatearen arloan, bai ekoizpen zientifikoaren eta ikerketaren arloan, eta politika zientifiko hori talentu ikertzailea erakartzera, atxikitzen eta prestatzen bideratuko da. Erronka teknologiko-digitalari eta garapen ekonomiko eta sozialari erantzuteko bidea da apustu hori.

2023ko maiatzaren 30ean Gobernu Kontseiluak 2023-2026 Unibertsitate Sistemaren Plana onartu ondoren, plan hori funtsezko tresna da unibertsitate-politikak definitzeko, helburuak identifikatzeko eta euskal unibertsitate-ekosistema osatzen duten eragileak koordinatzeko.

Plan hori, gainera, Nazio Batuen 2030 Agendarekin lerrokatuta dago, eta Garapen Iraunkorrekin Helburuekin konprometuta dago, gizarte oparoaren alde, eskubide- eta aukera-berdintasunarekin eta ingurunea errespetatuz.

Bikaintasunera bideratutako unibertsitate-ekosistemaren aldeko apustua egiten dugu, batez ere UPV/EHUren bikaintasunera bideratutakoa, prestakuntzarako, ikerketarako eta ezagutzen transferentziarako, espezializaziorako eta nazioartekotzerako dituen baliabideak hobetuz, gure unibertsitate-hezkuntzako eta zientzia-politikako ereduaren arrakastarako gako gisa.

Los cambios sociales que ya se están produciendo, el acceso a un empleo de calidad, la reestructuración del mercado de trabajo, el avance de las innovaciones tecnológicas, la automatización de los procesos productivos, la digitalización, la robótica y los sistemas inteligentes, los nuevos tipos de organización y gestión, la aparición de nuevos campos profesionales y la rápida transformación de las técnicas y de los equipamientos han hecho que los sectores productivos vengán demandando cambios profundos en la formación profesional.

Esto obliga a hacer las transformaciones necesarias para que la formación profesional en Euskadi esté preparada para afrontar los nuevos retos que se le presentan y pueda aprovechar el universo enorme de oportunidades que se abren en el futuro.

El objetivo es una Formación Profesional ágil, con sentido de anticipación, capacidad de reacción y efectividad real, con el fin último de desarrollar una formación profesional inteligente, sostenible, inclusiva y solidaria.

Para ello, la formación profesional seguirá trabajando y generalizando la formación de alto rendimiento basándose en metodologías activas de aprendizaje, y se seguirá fomentando la formación profesional dual.

Por otra parte, con el despliegue de la Ley Vasca de Formación Profesional y con la implementación del 6º Plan Vasco de Formación Profesional, se continuará llevando a cabo actuaciones muy concretas, especialmente en la inteligencia aplicada al desarrollo de la formación profesional de alto rendimiento, la innovación y los nuevos entornos; siempre en relación con la evolución de la cuarta revolución industrial y las necesidades que provocará una mayor formación de las personas que estudian o aspiran a estudiar formación profesional en Euskadi.

En cuanto al sistema universitario vasco, se seguirá avanzando hacia la excelencia tanto en el ámbito de la calidad de la oferta formativa como en el ámbito de la producción científica y en el de la investigación, orientando esa política científica hacia la atracción, retención y formación del talento investigador. Esta apuesta es la vía de respuesta al reto tecnológico-digital y al desarrollo económico y social.

Tras la aprobación el 30 de mayo de 2023 por el Consejo de Gobierno del Plan del Sistema Universitario 2023-2026, dicho plan se configura como una herramienta fundamental a través de la que definir las políticas universitarias, identificar los objetivos y coordinar a los diferentes agentes que conforman el Ecosistema Universitario Vasco.

Un plan alineado además con la Agenda 2030 de Naciones Unidas, y comprometido con sus Objetivos de Desarrollo Sostenible en favor de una sociedad próspera, con igualdad de derechos y oportunidades, además de respetuosa con el entorno.

Apostamos por un ecosistema universitario que se oriente hacia la excelencia, especialmente de la UPV/EHU, mejorando sus recursos para la formación, la investigación y la transferencia de conocimientos, la especialización y la internacionalización, como claves de éxito de nuestro modelo de educación universitaria y política científica.

Horrela, oinarritzko ikerketaren emaitzak enpresei, teknologia-zentroei eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko beste eragile batzuei transferitzea sustatzen eta laguntzen jarraituko da. Era berean, lankidetzak sustatzen jarraituko da prestakuntzan eta ezagutzaren transferentzian, unibertsitatetik enpresetarako eta Euskadiko beste eragile ekonomiko eta sozialetarako zubia sustatuz eta eraikiz.

Kalitatea eta nazioartekotzea lotura handia duen binomioa da. Gure unibertsitateei laguntzen jarraituko dugu, nazioartean erreferentzia diren posizioetan kokatzeko ahaleginean.

Eta euskal unibertsitate-sistemaren nazioartekotzea indartzen jarraitzeko, beharrezkoa da modu koordinatuan lan egitea unibertsitateen, Ikerbasqueren, BERC zentroyen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko gainerako eragileen artean. Gainera, euskal unibertsitate-ekosistemaren eta beste unibertsitate-ekosistema bikain batzuen arteko lankidetzak sustatzen jarraituko da, arreta berezia jarri Euskadi-Nafarroa Berria-Akitania Berriaren eta, oro har, Europaren arteko lankidetzan.

Hasieran adierazi den bezala, Haurreskolak Partzuergoari dagokionez, erronka demografikoaren esparruan, lanean jarraituko da eskolatzeko goiztiarrerako baliabide handia dena indartzeko, hezkuntza-testuinguruan erreferente izan dadin.

Legegintzaldi honetarako, oro har, eta hurrengo ekitaldirako, zehazki, ezarritako lehentasuneko helburuak pixkanaka lortzeko, honako arlo hauei lotutako aurrekontu-programak garatu behar dira:

Hezkuntzaren Egitura eta Laguntza.

Haur eta Lehen Hezkuntza.

Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa.

Unibertsitateko Irakaskuntza.

Araubide Bereziko Irakaskuntzak.

Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea.

Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza-HHE.

Hezkuntza Sustapena.

Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea.

Ikerketa.

Berrikuntzarako Funtza.

Berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa.

Goian aipatutako aurrekontu-programen memoriek bakoitzari dagokion informazio zehatza ematen dute.

Asimismo, se seguirá incentivando y apoyando a la transferencia de resultados de la investigación básica hacia empresas, centros tecnológicos y otros agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. Igualmente, se seguirá potenciando la colaboración tanto en la formación como en la transferencia del conocimiento, incentivando y construyendo desde la universidad el puente hacia las empresas y otros agentes económicos y sociales en Euskadi.

Calidad e internacionalización es un binomio fuertemente correlacionado. Continuaremos apoyando a nuestras universidades en su esfuerzo por posicionarse en puestos de referencia internacional.

Y para seguir reforzando la internacionalización del sistema universitario vasco, resulta necesario trabajar de manera coordinada entre las universidades, Ikerbasque, los Centros BERC, así como el resto de agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. Además, se continuará con el fomento de la colaboración del ecosistema universitario vasco con otros ecosistemas universitarios excelentes, con especial énfasis en la colaboración Euskadi-Navarra-Nueva Aquitania y, en general, de Europa.

Como ya se ha indicado al inicio, en lo que se refiere al Consorcio Haurreskolak, en el marco del reto demográfico, se seguirá trabajando para el fortalecimiento de lo que constituye un gran recurso para la escolarización temprana, al objeto de que sea un referente en el contexto educativo.

La consecución progresiva de los objetivos prioritarios establecidos para esta legislatura en general y el próximo ejercicio en particular, se soporta en el desarrollo de los Programas Presupuestarios asociados a las áreas siguientes:

Estructura y Apoyo de Educación.

Educación Infantil y Primaria.

Educación Secundaria y Formación Profesional.

Enseñanza Universitaria.

Enseñanzas de Régimen Especial.

Innovación Educativa y Formación Permanente del Profesorado.

Aprendizaje Permanente y Ed. Personas Adultas-EPA.

Promoción Educativa.

Euskaldunización del Sistema Educativo.

Investigación.

Fondo de Innovación.

Mecanismo de recuperación y resiliencia.

Las memorias de los programas presupuestarios arriba mencionados proporcionan la información detallada correspondiente a cada uno de ellos.

PROGRAMA

4211 HEZKUNTZA. EGITURA ETA LAGUNTZA

ARDURADUNA

HEZKUNTZA

KABINETE ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA ETA
ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDETZA

PROGRAMA

4211 ESTRUCTURA Y APOYO DE EDUCACIÓN

RESPONSABLE

EDUCACIÓN

DIRECCIÓN DE GABINETE Y COMUNICACIÓN Y
VICECONSEJERÍA DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS

MEMORIA

Egitura- eta laguntza-programak Saileko arlo guztietan komunak diren gaien kudeaketa hartzen du bere baitan: Hezkuntza Sistemaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa, Sailaren aurrekontuak eginez; gastuaren kudeaketa, jarraipena eta kontrola; laguntza juridikoa; azpiegitura, baliabide eta teknologietako zuzkiduren kudeaketa, sistema behar bezala garatzeko; eta unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-langile publikoen kudeaketa.

Egitura eta Laguntza programaren helburuak berariaz bideratuta daude Hezkuntza Sistemaren planifikazio, zuzendaritza eta kudeaketara.

Programa honen gastuak, nagusiki, Hezkuntza Administrazioaren ohiko funtzionamendua finantzatzeko dira, eta, beraz, Sailaren Zerbitzu Zentralak, lurralde-ordezkaritzak, Hezkuntzako Ikuskaritza eta Euskadiko Eskola Kontseilua barne hartzen ditu.

Era berean, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzak ere parte hartzen du programa honetan, titularrari zuzeneko laguntza emateko organo gisa, sailaren titularrari, zeinak azterketa-, aholkularitza-, koordinazio- eta komunikazio-funtzioak betetzen baititu, sailak beste administrazio batzuekin dituen harremanak bideratuz, eta, era berean, Sailak Arartekoarekin eta Legebiltzararekin duen elkarriketaren arduraduna da, eta, horretarako, erakunde publiko horietatik eta beste batzuetatik datozen kontsultei erantzuten die.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean xedatutakoa eta sailaren berdintasun-arloko plangintzan zehaztutakoa gauzatzeko bultzada, koordinazioa eta lankidetzak barne hartzen ditu.

El Programa de estructura y apoyo abarca la gestión de materias de naturaleza común a las diversas áreas del Departamento: gestión económico-financiera del Sistema Educativo mediante la elaboración de los Presupuestos del Departamento, su gestión, seguimiento y control del gasto; asistencia jurídica; gestión de las dotaciones en infraestructuras, recursos y tecnologías para el adecuado desarrollo del sistema; y gestión del personal educativo público no universitario.

Los objetivos del programa de Estructura y Apoyo están principalmente orientados a la planificación, dirección y gestión del Sistema Educativo.

Los gastos de este programa se destinan principalmente a financiar el funcionamiento ordinario de la Administración Educativa, incluyendo, por tanto, los Servicios Centrales del Departamento y las Delegaciones Territoriales, así como la Inspección Educativa y el Consejo Escolar de Euskadi.

La Dirección de Gabinete y Comunicación participa también de este Programa como órgano de apoyo directo al titular del Departamento, con funciones de análisis, asesoramiento, coordinación y comunicación, canalizando las relaciones del Departamento con otras administraciones y siendo, asimismo, la responsable de la interlocución del Departamento con el Ararteko y con el Parlamento, dando para ello respuesta a cuantas consultas provenientes de éstas y otras instituciones públicas se reciban.

Asimismo, incluye el impulso, la coordinación y colaboración para la ejecución de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como lo definido en la planificación departamental correspondiente en materia de igualdad.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. SAILEKO ORGANO DESBERDINEN ETA BERORIEN ETA GOBERNUKO GAINONTZEKO SAILEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA, BEHAR IZANEZ GERO, LEGEBILTZARRAREKIKO ETA HERRITARREKIKO HARREMANAK, EZARRITAKO PROZEDURAREN BIDEZ, BIDERATZEA 1. Saileko organoen eta berorien eta Gobernuko gainontzeko Sailen eta beste Administrazio batzuen arteko harremanak adostea, irizpide eta jarduerak bateratzeko Sailaren jarduera-arloak gauzatzeko orduan: Bilera, idazki eta jakinarazpenak. 2. Legebiltzarrarekiko interakzioa eta koordinazioa: Galdera parlamentarioei erantzuna ematea. Informazio dokumentatuaren eskaerak. Kontrol-plenoetan interbentzioak. Sailaren agerraldiak. Arartekoarengan landutako gaiak. 3. Herritarrei informazioa eman eta haien eskaerei erantzuna ematea, horretarako ezarritako komunikatzeko modu desberdinen bidez: Informazio publikoaren tramitea. Informazioa eskatzea, kexak, iradokizunak eta erreklamazioak. 2. HEZKUNTZA-SISTEMAREN KUDEAKETA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA 1. Aurrekontuen urteko aurreproiektua eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egitea. Aurrekontuaren gauzatzearen jarraipena eta aurreko urteko helburuen betetze-maila. 2. Aurrekontuaren gauzatzea kudeatzea eta kontrolatzea. Gastuen eta sarreraren kontabilitate-dokumentuen izapidetzea zentralizatzea: Kontabilitate-dokumentazioa izapidetzea. Kontabilitate-espediente kopurua. Aurreratutako Fondoak: ordainketa-kopurua. Zuzeneko dirulaguntzak. Dirulaguntza izendunak. Dirulaguntzen aginduak.	<45 >150 >50 >25 >10 >130 >25 >1.000 15.000 11.000 30 60 60	1. COORDINACIÓN ENTRE LOS DISTINTOS ÓRGANOS DEL DEPARTAMENTO Y DE ÉSTOS CON EL RESTO DEL GOBIERNO Y, EN SU CASO, ENCAUZAMIENTO DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO POR EL PROCEDIMIENTO ESTABLECIDO Y LA CIUDADANÍA 1. Concertar las relaciones entre los órganos del Departamento y de éstos con el resto del Gobierno y otras Administraciones, para aunar criterios y acciones en ejecución de las áreas de actuación del Departamento: Reuniones, escritos y comunicaciones. 2. Interacción y coordinación con el Parlamento: Respuestas a preguntas parlamentarias. Solicitudes de información documentada. Intervenciones en Plenos de Control. Comparecencias del Departamento. Temas tramitados ante el Ararteko. 3. Información a la ciudadanía y respuesta a sus demandas a través de los diferentes canales de comunicación habilitados para tal fin: Trámite de información pública. Peticiones de información, quejas, sugerencias y reclamaciones. 2. GESTIÓN ECONÓMICA FINANCIERA DEL SISTEMA EDUCATIVO 1. Elaboración del anteproyecto anual de presupuestos y del Plan Estratégico de Subvenciones. Seguimiento de la ejecución presupuestaria y grado de cumplimiento de objetivos del año anterior. 2. Gestión y control de la ejecución del presupuesto. Centralización de la tramitación de los documentos contables de gastos e ingresos: Tramitación de la documentación contable. Número de expedientes contables. Fondos Anticipados: número de pagos tramitados. Subvenciones directas. Subvenciones nominativas. Ordenes de subvenciones.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
3. EAEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO ETA IRAKASKUNTZAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO SEKTORE PUBLIKOAREN ORDAINSARI-SISTEMA ETA LAN-BALDINTZAK KUDEATZEA. SAILEKO LANGILEEN KUDEAKETA 1. Oro har, Hezkuntza Sailera atxikitako langileen lan eta lanskarien baldintzak kudeatzea; eta bereziki, bakoitzaren hitzarmen kolektiboen eremuan: Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen kolektibo aktiboan dauden langileen kopurua. 1.512 Irakasle funtzionarioen kolektiboan jardunean dauden langileen kopurua. 28.547 Hezkuntza Saileko irakasle eta hezitzaile lan-kontratuko langileen kolektiboa. 1.086 Hezkuntza Saileko lan-kontratuko irakasleen eta hezitzaileen langile aktiboen kopurua. 2.108 2024 ekitaldirako hezkuntzako lan-legepeko langileen plantilla gehikuntza. 100 Hezkuntza Saileko Erlijioeko lan-kontratuko langileen kolektiboan jardunean dauden langileen kopurua. 205 2. Irakaslegaien poltsa kudeatu eta mantentzea, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkatzek egin ahal izateko: Ikastetxe publikoetako ordezkapenen poltsan sartutako bitarteko irakasleen lan-poltsan dauden hautagaien kopurua. 51.000 3. Lekualdatze-lehiaketen kudeaketa: Karrerako irakasle funtzionarioen kolektiboko gutxi gorabeherako parte-hartzaileen kopurua. 4.000 4. Irakasleen kidegoetara sartzeko hautaketa-prozeduren kudeaketa: Parte-hartzaileen batez besteko kopurua. 28.000 5. Sailak lan-arloan gizarte-solaskideekin dituen harremanak mantentzea eta kudeatzea, Hezkuntza Saileko langileen kolektiboen lan-baldintzei dagokienez: Gizarte-eragileen kopurua. 6 6. Irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa eta Hezkuntza Saileko lan-kontratuko langileentzako hiru hitzarmen kolektibo berri negoziatzea.	3. GESTIÓN DEL SISTEMA RETRIBUTIVO Y DE CONDICIONES LABORALES DEL SECTOR DOCENTE Y NO DOCENTE PÚBLICO NO UNIVERSITARIO DE LA CAPV. GESTIÓN DEL PERSONAL DEL DEPARTAMENTO 1. Gestión de condiciones laborales y retributivas del personal adscrito al Departamento de Educación en general y en el ámbito de los respectivos convenios colectivos en particular: Número de trabajadores en activo del colectivo de personal funcionario y laboral de Administración General. Número de personas trabajadoras en activo del colectivo de personal funcionario docente. Número de personas trabajadoras en activo del colectivo de personal laboral del Departamento de Educación. Número de personas trabajadoras en activo del personal laboral docente y educativo del Departamento de Educación. Incremento orientativo de plantilla estructural del personal laboral educativo en el ejercicio 2024. Número de personas trabajadoras en activo del colectivo de personal laboral de Religión del Departamento de Educación. 2. Gestión y mantenimiento de las bolsas de personas candidatas docentes para realizar sustituciones en centros docentes públicos no universitarios de la CAPV: Número de personas candidatas en bolsa del Colectivo personal interino docente incluido en la bolsa de sustituciones en centros públicos. 3. Gestión de concursos de traslados: Número aproximado de participantes del Colectivo de personal funcionario de carrera docente. 4. Gestión de procesos selectivos para el ingreso en cuerpos docentes: Número aproximado de participantes. 5. Mantenimiento y gestión de las relaciones departamentales en materia laboral con los interlocutores sociales en relación con las condiciones laborales de los diferentes colectivos de personas trabajadoras del Departamento de Educación: Número de agentes sociales. 6. Negociación del Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del Personal Funcionario Docente y de tres nuevos convenios colectivos para el Personal Laboral del Departamento de Educación.	

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
4. SAILAREN INBERTSIO-PLANA KUDEATZEA 1. Sailaren Inbertsio Planaren definizioari laguntzea, gisa-baliabideen eta baliabide teknikoen bidez: Gainbegiratu beharreko obra-espediente guztien kopurua. Tramitatu beharreko obra-espediente guztien kopurua. Kontratazio-espedienteak egitea eta kudeatzea. Udal titulartasuneko ikastetxeetan konponketa handiak egiteko obrak. Hezkuntza Saileko ikastetxeetan eraginkortasun energetiko hobearen lortzeko lanak.	 75 60 200 15 20	4. GESTIÓN DEL PLAN DE INVERSIONES DEL DEPARTAMENTO 1. Dar soporte con medios humanos y técnicos a la definición del Plan de Inversiones del Departamento: Número total de expedientes de obra a supervisar. Número total de expedientes de obra a tramitar. Elaboración y gestión de expedientes de contratación. Obras de gran reparación en centros docentes de titularidad municipal. Actuaciones para conseguir una mejor eficiencia energética en los centros del Departamento de Educación.
5. SAILEKO INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIO-PLANA JARRI, EZARRI ETA HORREN JARRAIPENA EGITEA 1. Saileko aplikazioak eta datu-baseak garatzea eta mantentzea: Aplikazio-kopurua. Hezkuntza-aplikazioak ostatzeko zerbitzarien kopurua. Funtzionamendu-softwareaz hornitu beharreko lanpostuen kopurua. 2. Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan dagoen informatika-parkea eta dagokion softwarea mantentzea: Ekipo informatikoen kopurua. Komunikazioen mantenimendua. Ikastetxeen kopurua. Sare informatiko berriak instalatzea. Ikastetxeetako wifien hornidura (wifi antenen kopurua). Ekipo informatiko berriak erostea. Mahai gaineko ekipoen kopurua Berritzu Planerako. Zentroetako zerbitzariak ordeztzea. Zerbitzari kopurua. Irakasleentzako ekipamendu eramangarri berriak hornitzea. Ekipoen kopurua. Gela digital berriak Lehen Hezkuntzan. 3. Bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetan dagoen informatika-parkea eta dagokion softwarea mantentzea: Ekipo informatikoen kopurua.	 234 48 800 48.000 472 60 500 5 300 500 47.000	5. ESTABLECIMIENTO, IMPLANTACIÓN Y SEGUIMIENTO DEL PLAN INFORMÁTICO Y DE COMUNICACIONES DEL DEPARTAMENTO 1. Desarrollo y mantenimiento de aplicaciones y bases de datos departamentales: Número de aplicaciones. Número de servidores de albergue de aplicaciones educativas. Número de puestos de trabajo a dotar con software de funcionamiento. 2. Mantenimiento del parque informático existente y software correspondiente en los centros públicos de Primaria: Número de equipos informáticos. Mantenimiento de las comunicaciones. Número de centros educativos. Instalación de nuevas redes informáticas. Dotación de wifis de los centros (número de antenas wifi). Adquisición de nuevos equipos informáticos. Número de equipos de sobremesa para el Plan Berritzu. Sustitución de los servidores de los centros. Número de servidores. Dotación de equipos portátiles nuevos para docentes. Número de Equipos. Instalación de aulas digitales en centros de Educación primaria. 3. Mantenimiento del parque informático existente y software correspondiente de los centros públicos de secundaria: Número de equipos informáticos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Komunikazioen mantenimendua Komunikazioen mantenimendua.	270	Mantenimiento de las comunicaciones. Número de centros educativos.
Ikastetxeetako wifi berriak (antena kopurua).	50	Instalación de nuevas redes informáticas. Nuevas wifis de los centros (número de antenas).
Ekipo informatiko berriak erostea. Mahai gaineko ekipoen kopurua Berriztu Planerako.	500	Adquisición de nuevos equipos informáticos. Número de equipos de sobremesa para el Plan Berriztu.
Berriztu Planerako Sare_Hezkuntza Ekipo informatiko berrien kopurua.	300	Número de equipos nuevos para el plan Berriztu de Sare_Hezkuntza.
Berriztu Planeko ikastetxeetako zerbitzariak aldatzea.	5	Número de servidores sustituidos en los centros.
Irakasleentzako eramangarri berrien kopurua.	150	Número de equipos portátiles nuevos para docentes.
Gela digital berriak Bigarren Hezkuntzan.	3.500	Instalación de aulas digitales en centros de Secundaria.
6. ESTATISTIKA-DATUAK LANTZEA		6. ELABORACIÓN DE DATOS ESTADÍSTICOS
1. 2023-24 ikasturteko aurrematrikula eta matrikulazio-datuak biltzea, grabatzea eta lantzea:		1. Recogida, grabación y elaboración de datos de prematrícula y matrícula curso 2023-24:
Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide-Heziketako ikastetxeen kopurua.	1.198	Número de Centros de Enseñanza Infantil, Primaria, Secundaria y Formación Profesional.
Irakaskuntza espezializatuetao ikastetxeen kopurua.	133	Número de Centros de Enseñanzas Especializadas.
7. SAILAREN EKINTZEN PLANIFIKAZIOA, ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA		7. PLANIFICACIÓN, DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN DE LAS ACTIVIDADES DEL DEPARTAMENTO
1. Sailaren goi-zuzendaritza betetzea:		1. Ejercer la alta dirección del Departamento:
Zuzendaritza Batzordearen bilera kopurua.	48	Número de reuniones del Consejo de Dirección.
8. LAGUNTZA JURIDIKOA. GOBERNU KONTSEILUARI ETA EHAARI GAIAK KUDEATZEA		8. ASISTENCIA JURÍDICA, GESTIÓN DE ASUNTOS A CONSEJO DE GOBIERNO Y BOPV
1. Xedapen orokorrei, hitzarmenei, Dirulaguntzei eta bestelakoei buruzko txosten juridikoak egitea:		1. Elaboración de informes jurídicos sobre disposiciones de carácter general, convenios, subvenciones y otros:
Txosten kopurua.	220	Número de informes.
2. Administrazio-errekurtsoak eta ondare-erreklamazioak ebaztea:		2. Resolución de recursos administrativos y reclamaciones patrimoniales:
Errekurtso kopurua.	3.200	Número de recursos.
Erreklamazio kopurua.	60	Número de reclamaciones.
3. Gobernu Kontseiluan aztertu beharreko sailaren gaiak bidaltea:		3. Remisión de los asuntos del Departamento que han de ser tratados en el Consejo de Gobierno:
Igorritako espedienteak.	140	Expedientes remitidos.
Landutako akordio-proposamenak.	47	Propuestas de acuerdo elaboradas.
4. Behar diren administrazio-kontratazioak egitea:		4. Realizar las contrataciones administrativas precisas:
Kontratazio-espedienteak.	130	Expedientes de contratación.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Gorabeherak.	40	Incidencias.
9. LANGILEAK ADMINISTRATZEA ETA KUDEATZEA		9. ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN DE PERSONAL
1. Saileko plantilla administratzea:		1. Administrar la plantilla del Departamento:
Langile zerrenda.	1.465	Plantilla.
Langile kopurua.	1.570	Número de personas.
2. Saileko langileen birziklapena eta prestakuntza indartzea (euskara izan ezik):		2. Potenciación del reciclaje y formación del personal del Departamento (excepto euskera):
Prestakuntza jardueretara joandakoen kopurua.	450	Número de asistentes a actividades formativas.
10. ANTOLAMENDUA, BITARTEKOAK ETA BARNE FUNTZIONAMENDUA KOORDINATZEA ETA LAGUNTZEA		10. COORDINACIÓN Y APOYO EN MATERIAS DE ORGANIZACIÓN, MEDIOS Y FUNCIONAMIENTO INTERNO
1. Espazio eta ekipamendu beharrei erantzutea:		1. Atención a las necesidades de espacio y equipamiento:
Erantzundako espazio-beharrak.	110	Necesidades de espacio atendidas.
Erantzundako ekipamendu-beharrak.	350	Necesidades de equipamiento atendidas.
2. Sailaren erregistro informatizatua:		2. Registro informatizado del Departamento:
Inversicres sarrerak.	12.000	Entradas Inversicres.
REG (Erregistro elektronikoa orokorra) sarrerak.	2.500	Entradas REG (Registro general electrónico).
Irteerak. Inversicres.	6.000	Salidas. Inversicres.
RPT aldagak espedienteak.	30	Número de expedientes de modificación de RPT.
Zerbitzuen katalogoan alta eman den prozedura kopurua.	105	Número de procedimientos dados de alta en el Catálogo de Servicios.
Sailaren digitalizazio planaren baitan egindako ekintzak.	600	Acciones realizadas dentro del plan de digitalización del Departamento.
11. SAILAREN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA		11. FOMENTO DEL USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO
1. Euskararen Erabilera Planarekin lotutako jarduerak:		1. Actividades relacionadas con el Plan de Uso del Euskera:
Urteko kudeaketa-plana.	2	Plan de gestión anual.
Koordinazio-bilerak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaekin.	10	Reuniones de coordinación con la Viceconsejería de Política Lingüística.
2. Aholkularitza: itzulpenak eta zuzenketak.		2. Asesoramiento: traducciones y correcciones.
Aholkurari kopurua.	150	Número de asesoramientos
3. Sailaren hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak eta jarduerak:		3. Cursos y actividades de capacitación lingüística del Departamento:
Euskara ikastaroak.	70	Cursos de euskera.

